



oinharri
— eskola —

ezagutuz aldatzea

Oinharri Eskolaren egitasmoa aurkezteko txostena duzu honakoa. Lau ataletan banatu dugu, elkar elikatzen duten funtsezko osagaiak ahalik eta modu argienean azaltzeko.

Lehenik, Eskolaren izaera, helburuak eta oinarri ideologikoak laburbiltzen dira. Bigarrenik, eskolaren proposamen politiko-pedagogikoa zehazten da. Hirugarrenik, Oinharri Eskolan parte hartzen dugunon eta parte hartzeko bideen berri ematen da, eta azkenik, Eskolaren ezaugarri nagusietako bat izango den espazio fisikoaren edo egoitzaren proiektua zehazten da.

EDUKIA

[1] ESKOLAREN PROIEKTUA ERAIKITZEN

Oinarrizko ideia sortzen.....	3
1.1. FORMAZIO-PROIEKTUAREN AURREKARIAK.....	3
1.2. ESKOLAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK.....	3
1.3. ESKOLAREN HELBURUAK.....	4
1.4. NORENTZAKO ESKOLA DA?.....	5
1.5. NORTZUK ARI GARA ESKOLA SORTZEKO PROZESUAN?.....	6

[2] ESKOLAREN METODOLOGIA POLITIKO-PEDAGOGIKOA

Egoteko-egiteko modua.....	7
2.1. METODOLOGIAREN ZEHARKAKO EZAUGARRIAK: Elkarrekin bizi, zaindu, sortu, irauli eta ikasi.....	7
2.2. IKASKUNTZA EREMUAK.....	9
2.3. OINHARRITXIKI ESKOLA.....	10

[3] NOLA ERAIKIKO DUGU OINHARRI?

Euskal Herrirako formakuntza eskola sortzen.....	11
3.1. PROZESUA HELBURU: PROZESUA ERAIKIZ, ESKOLA SORTUZ.....	11
3.2. PARTE HARTZEKO MODU ANITZAK.....	12

[4] NON KOKATUKO DA OINHARRI ESKOLA?

Egoitza fisikoa eraikitzen.....	13
---------------------------------	----

[1]

ESKOLAREN PROIEKTUA ERAIKITZEN

Oinarrizko ideia sortzen

Eraikuntza prozesuaren xedea Euskal Herrian herri formazio politikorako eskola sortzea da. Ikuspegi iraultzaile eta kritikoaren bidez, eraldaketa prozesuak bultzatu nahi ditu eskolak, herri mugimenduen zein mugimendu askatzaileen kideak formatu, elikatu eta osatzeko asmoz, Euskal Herrian herri boterea sustatze aldera.

Eskolak espazio fisiko propioan antolatuko diren formazio-barnetegi edo ikastaroen bidez garatuko du bere jarduera, eta formazio prozesuak bultzatzearekin batera, xede izango du ikerketa, hausnarketa, eztabaidarako espazioak eta ideien zabalkunderako bitartekoak sortzea.

1.1. FORMAZIO-PROIEKTUAREN AURREKARIAK

Gure herrian, aurreko hamarkada luzeetan herri mugimenduetan zein herri formakuntzan sortutako esperientziak aintzat hartzen ditu Eskolak, besteak beste: frankismoaren garaian antolatutako ezkutuko eskola sozialak, 60ko hamarkadako mugimendu kooperatibistaren eskolak, 70eko gau-eskolak, ikastolak eta eskola-unibertsitate herritarrak, 80ko herri mugimendu, sindikatu zein mugimendu askatzaileen formazio-eskolak, 90eko eta ondorengo gazte eta ikasle mugimenduen formazio-eskolak, eta azken bi hamarkadetako nekazari, ekologista zein feminista ikuspegiak dituzten formazio-prozesuak.

Esperientzia anitz eta aberats horietatik edaten dugu, gure herrian garai desberdinetan egon diren egiteko, egoteko moduak, joerak eta jarduerak geure eginez.

Era berean, inguruko zein urrunagoko formazio-esperientzietatik ikasteko eta bere burua aberasteko gaitasuna erakutsi du historikoki gure herriak. Horregatik, munduan zehar garatu izan diren eta garatzen diren formazio-esperientziak ezagutu eta aintzat hartzen ditugu. Esaterako, proiektu honen bultzatzaileetarik askok Movimento dos Trabalhadores Rurais sem Terra no Brasil (MST)-rekin harremana izan dute, eta euren esperientzia pedagogikoa hartu da oinarri proposamena gauzatzeko.

1.2. ESKOLAREN OINARRI IDEOLOGIKOAK

Formazio-proiektu honek egungo injustizia eta zapalkuntza egoera oro gainditzeko bidean egin nahi du ekarpena, eta horien aurrean, jendarte eta proiektu askatzaileak eraikitzen laguntzeko xedea du.

Eskolaren ikuspegia askatzailea eta dinamikoa den heinean, aintzat hartzen ditu historian zehar egindako ekarpen askatzaile anitzak, bereziki Amalurrarekin lotura izan duten jatorrizko herrien ekarpenak zein azken mendeetako askotariko mugimendu iraultzaileen esperientziak (ikuspegi sozialista,

komunista, libertarioa, feminista, ekologista, antimilitarista...].

Horrela, ideologikoki iturri anitzak eta dinamikoak izanagatik ere, Eskolak sustrai ideologiko sendoak ditu, eta ezinbestez, irekita dago egungo ekarpen berri desberdinei ere. Honela laburbildu daitezke formazio-proiektuaren oinarriak:

1.2.1. Euskal Herriko esperientzia askatzaileak aintzat hartzen ditu, eragile zehatzen menpe egon gabe eta hauen arteko elkartrukea modu irekian sustatuz. Eskola herritarra da, modu zabalean ulertutako herri mugimenduentzako eskola.

1.2.2. Euskal Herria nazio gisa aitortzen du, gure lan esparru natural gisa hartuz. Euskal izaera, euskal mundu-ikuskerak eta euskara lehenesten ditu. Era berean, Eskolak langile-klasearen interesei erantzun die, praktika feminista, ikuspegi antiinperialista eta elkartasun internazionalista bere eginez, eta Ama-lurra ikuspegi ekologikotik bizitzeko lan egingo du. Zapalkuntza-sistema anizkoitzaren aurrean, emantzipazio osoa bultzatzen du.

1.2.3. Zapalduen batasuna eta auzolana dira antolaketarako gakoak. Eskolak autogestioan eta auto-antolakuntzan oinarrituz garatuko du bere jarduera. Konpromisoa, militantzia eta auzolana dira elkarlanerako balio nagusiak.

1.2.4. Eraldaketarako filosofia, filosofia iraultzailea, materialismo historiko dialektikoa da nagusiki, ikuspegi dinamikoan. Pentsamendu kritikoa eta erradikala lehenetsiko ditu ezagutzarako erreminta kognitibo gisa.

1.3. ESKOLAREN HELBURUAK

1.3.1. Helburu orokorrak

A) Euskal Herrian herri boterea bultzatzeko asmoz, herri-mugimenduetako kideei zuzendutako formakuntza-prozesuak antolatzea, eskaintzea eta garatzea.

B) Jendarteak historikoki sortutako jakintza zientifikoa gure eginez, herri-erakunde edo mugimenduak indartzen laguntzea.

D) Euskal Herriko zein nazioarteko herri-mugimenduen eta mugimendu askatzaileen arteko elkar ezagutza, harremanak eta sareak bultzatzea, erraztea, eskaintzea, eta elkartasunerako, elkartrukeerako zein elkarrekintzarako topagunea izatea.

E) Euskal Herrian zein mundu mailan, herri-hezkuntza eta formakuntza politikoa bultzatzen duten eragileekin zein hezkuntzan (arautuan, ez-arautuan, formalean zein informalean) aritzen diren erakundeekin harremana sustatu, saretu eta elkarlana bultzatzea.

F) Irakaskuntza-ikaskuntzarako teoria eta esperientzia pedagogiko eraldatzaileekin elkarrizketa iraunkorra bultzatu eta elkartrukeak gauzatzea.

G) Pertsonen askapen prozesua elikatze bidean, zapalduen identitate guztiak barne bilduko dituen nortasun kolektibo bateratzailea, gaurkotua, kritikoa eta aktiboa sortzen laguntzea.

H) Jendarte askearen eraikuntza bultzatuko duen gehiengo berria edo masa kritikoa indartu eta hegemonia kulturala lortze aldera, formazio-kultura eraldatzailearen oinarriak jartzea.

1.3.2. Ikaskuntza helburuak

Kontuan izanik pedagogikoa politikoa dela, barnetegietan parte hartzen duten kideak trebatu nahi ditu Oinharri Eskolak, ikaskuntza helburu hauen baitan: (*sakontzeko, ikus proposamen politiko-pedagogikoa*):

- 1) Antolakuntzaren beharra barneratzea eta kontzientzia zein formazio politikoa garatzea.
- 2) Nazio mailan edo nazioarte mailan estrategikoak zein koitunturazkoak diren gaien inguruan eztabaidatzea eta hausnartzea.
- 3) Euskal Herriko zein nazioarteko errealitate ekonomiko, soziopolitiko eta ideologikoaren inguruko hausnarketak eta diagnosiak burutzea.
- 4) Garatuko diren formazio-jardueretan Materialismo Historiko Dialektikoa analisirako metodo gisa erabiltzea.
- 5) Euskal Herriko herri mugimendu anitzen borroka-esperientziak eta antolakuntza-ereduak ezagutzea, aztertzea, horien inguruan hausnartzea eta irakaspenak ateratzea.
- 6) Herri mugimendu bakoitzaren jarduera politikoan oinarritutako teoria iraultzailea eta idatzizko ekoizpen teoriko/praktiko propioak sortzeko gaitasuna garatzea.
- 7) Euskal Herrian garatu beharreko prozesu askatzailea indartzeko proposamen teoriko/praktiko berriak eta propioak sortzeko gaitasuna garatzea.
- 8) Garatutako formazio prozesua aztertzea, ebaluatzea eta hobetzea era dinamikoan.

1.4. NORENTZAKO ESKOLA DA?

Gaur egungo hezkuntza-sistemak pertsona ez-osatuak, kutsatuak eta apurtuak eraikitzen ditu, pertsonaren ahalmenak murrizten edo mugatzen ditu jendartearen egitura iraunarazteko. Formakuntza politikorako eskola honek pertsona askeak sortzeko baldintzak jartzen eta zabaltzen lagundu nahi du. Aurreko mendeko 60. hamarkadan Oteizak bultzatutako lehen ikastola askeen proiektuetan bezala, eraldaketarako oinarritzko subjektua pertsona dela pentsatzen dugu, alegia, pertsona bakoitza bilakatu behar dela eraldaketaren motor edo eragile.

Formazio-prozesuak pertsonaren etengabeko berreraikuntza eta eraldaketarako ezinbesteko tresnak izateaz gain, pertsona bakoitzaren ahalmen propioak askatzeko eta sakontzeko baliagarriak ere badira, ezagutzaren eraikuntza kolektibo eta askatzailea aktibo politiko bilakatzeko aldera.

Pertsona oinarrizko atomo soziala den heinean, oinarrizko subjektu politikoa da. Bere sozializazio prozesua eta bere gaitasunen garapena komunitatean gauzatzen dira. Etengabeko elkarrekintzan egonda, bai pertsona bai komunitatea, oinarrizko subjektu politiko/sozialak direla esan daiteke.

Ideia horietan oinarrituta, eskolak oinarrizko prestakuntza politikoa jasotzeko aukera eskaini nahi die Euskal Herriko herri mugimenduetako koadro politikoei, arduradunei zein militanteei. Herri-mugimenduko eragileentzako dinamizatzaile edo hezitzaile politikoak heztea da asmoa, eskola honetan ikasitakoa nork bere herri-erakundearen partekatu, zabaldu eta erabili dezan, garatzen duen ekintza politikoa eta eragilea bera sendotu eta indartu ahal izateko.

Herri-mugimenduko erakundeekiko errespetua, formazio-prozesuaren eraginkortasuna eta partaideen erantzukizuna bermatze aldera, eragile bakoitzak proposatuko ditu eskolara etorriko diren kide-militanteak. Jendartearen eraldaketarekin konprometitutako kultura arloko eragile kolektiboei eta norbanako eragileei ere irekita egongo da eskola.

Honekin batera, bereziki udako barnetegian Eskolaren ezaugarri garrantzitsuenetariko bat komunitatea ahalik eta modu aberatsenean osatzea izanik, helduen zaintzapean diren haurren parte-hartze aktiboa bultzatuko da, berariaz diseinaturiko Oinarrizkiki egitasmoaren bidez.

1.5. NORTZUK ARI GARA ESKOLA SORTZEKO PROZESUAN?

Euskal Herri osoko hainbat herri eragile politiko, sindikal edota sozialetan parte hartzen dugun militanteak gara. Gure herrian atzo eta gaur garatu eta garatzen diren beste hainbat formazio-proiektutan parte hartzen dugu, eta Eskola diseinatzeko konpromisoa hartu dugu, Euskal Herriko askapen prozesuan ekarpen eraginkorra eta eraikitzailea egin dezakeelakoan.

Eskola inolako alderdi, eragile politiko, sindikatu edo herri eragileren menpe egon ez arren, hauekin lan egiteko prestutasuna eta helburua du, besteak beste, horrela ulertzen baitugu Eskolaren eraikuntza prozesua bera.

ESKOLAREN METODOLOGIA POLITIKO-PEDAGOGIKOA

Egoteko-egiteko modua

Oinharri Eskolaren ikaskuntza-irakaskuntzarako metodologia Herri hezkuntzan oinarritzen da. Hezkuntza esku-hartze politikorako esparru gisa ulertzen du, herri-sektoreak ahaldundu eta auto-antolatze prozesuak erraztu eta dinamizatzeko proposamen politiko-pedagogikoa da.

Eredu pedagogiko honek ezagutza eraikitze metodologia zehatza proposatzen du: ezagutza era kolektiboan sortzea, norberaren esperientzia eta praktiken testuinguruan kokatzen den gogoeta sistematikotik abiatuta. Kontzientzia politikoa garatu eta politikoki eragiteko gure gaitasun pertsonala eta kolektiboa askatu eta indartuko dituzten prozesu hezitzaileak hobesten dira, gure arteko praktikak eta sinesmenak ildo askatzailean eraldatuz. Horrenbestez, herri hezkuntzaren proposamena praxiaren teoria eta teoriaren praxia da; asmo etiko zein politiko askatzailearen bidez, menderatze-harremanak desegitea.

Ikaskuntza-irakaskuntzarako metodologiaren beste zutabea, Engels eta Marxen teorian oinarritzen den Materialismo historikoaren eta dialektikoaren metodoa da. Idealismoaren kontra, materialismoa esperientzia eta arrazoinamenduen bitartez eskuratzen den ezagutzaz hornitzen da. Bizi-baldintza materialek (azpiegitura ekonomikoak) baldintzatzen dituzte pertsonen arteko harreman sozialak, eta horiekin batera, jendarteak izango dituen sinesmen, uste eta ideiak. Ekonomia ez da pertsonen ideien ondorioa, kausa baizik. Bizi-baldintzak aldatzen direnean harreman sozialak ere aldatzen dira eta, ondorioz, bizi-baldintza horiek justifikatzeko erabiltzen den ideologia ere bai. Marxen arabera, filosofiak zeregin iraultzailea dauka: mundua interpretatzea eta aldatzea.

Dialektikaren ikuspuntutik, aldakortasuna da errealitatearen ezaugarri nagusia. Ezer ez da estatikoa, dena eraldatzen da, etengabeko mugimenduan dago, etengabeko elkarriketan, etengabeko kontraesanean... eta halakoa izango da Eskolaren eraikuntza prozesuaren izaera bera ere. Alegia, helburua ez dela izango existitzen ez den behin betiko formula magikoa topatzea, baizik eta bidean aurrera egin ahala, formula hori etengabe berregin eta berrasmatzea.

Hortaz, printzipio metodologiko horiek praktikan jarri ahal izateko, proiektuen bidezko ikaskuntzaren eta ikaskuntza kooperatiboaren planteamendu didaktikoak baliatuko ditugu.

2.1. METODOLOGIAREN ZEHARKAKO EZAUGARRIAK: Elkarrekin bizi, zaindu, sortu, irauli eta ikasi

- **Praxi holistikoa.** Teoria eta praktika elkar lotzen dituen praxia izango da. Formazioa ez dugu soilik teoriarekin lotuko, baizik eta praktikarekin eta praktikara begira. Formazio jarduera eta dinamikak dena lotu behar du, eta denetarako baliabideak eskaini. Hortaz, formazio politikoa mundu berriaren eraikuntzarekin erabat lotu behar da, ikuspegi askatzailea inguratzen gaituen osotasun horrekin lotuz.

- **Formazio politiko integrala.** Formazioa bizitzaren eremu guztiekin lotuta egonik, formazio integralaren ideian oinarritu nahi da gure egoteko-egiteko modua. Bizitzaren arlo guztiak eta eremu guztiak formazio politiko integral horren parte izango dira: koiuntura analisi bat egiteko gaitasuna lantzea, kantu bat asmatzea, zein sukalde txukun eta garbi batean otordu goxo bat prestatzea.

- **Bizipenetan oinarritutako formazio integrala.** Formazio politikorako barnetegietan, den-dena kokatzen da formazioaren baitan, hasieratik bukaeraraino. Hau da, bizipen guzti-guztiak, bizi eredu eta bizi ikuskera ere, jakina, formazio-prozesu horren parte dira. Gakoa hitzetatik ekintzetara pasatzea izanik, ahalegin berezia eskainiko zaio honi, era kontzienteago batean esperimentatu eta barneratzeari, alegia.

- **Burujabetza eta jabekuntza ardatza.** Formazio politiko integrala gauzatu ahal izateko, alegia, bizitzako esparru guztiak beren osotasunean landu ahal izateko, burujabetza izango da gure iparrorratza. Burujabetza norbanako gisa eta kolektibo gisa, eta noski, elkarrekiko errespetuan eta konpromisoan oinarrituta. Burujabetza, beraz, beren kabuz erabakitzekeo gai izango diren subjektuak eraikitzen laguntzeko.

- **Naturarekin bat.** Kontuan izanik pertsona ezin dela naturatik bereizi, banaezintasun hori oinarri hartuta egingo dugu lan. Hau da, gure ekintzek naturan izan dezaketen eragina etengabe kontuan hartzeaz gain, naturak gure ekintzetan duen eragina ere kontuan izanez. Horrek, bestalde, gure gorputzekin eta osasunarekin dugun harremana lantzerako behartzen gaitu, eta ikuspegi hori gure praktikan txertatzera.

- **Oinarri lana, formazioaren oinarri gisa.** Jendartea espazio txiki eta hurbiletan eraikitzen da, eta espazio horietatik abiatuta eraldatzen da. Oinarrian egin beharreko lana ezinbestekoa da prozesu-proiektu eraldatzailearentzat. Horregatik, gure formazioaren egiteko moduan oinarri lanari ezinbesteko garrantzia emateaz gain, lehentasuna eskainiko zaio horren gaineko gogoetari ere.

- **Taldearekiko konpromisoa eta diziiplina.** Geure burua norbanako gisa ulertzeaz gain, izaera kolektiboa duen proiektu baten parte gisa ere ulertzen dugunez, ezinbestekoa izango da konpromisoa, errespetua eta diziplinaren garrantzia barneratu eta praktikan islatzea; ez soilik eskolaren funtzionamendu egokiari begira, baizik eta eskolak ekarpena egin nahi duen proiektu zabalago horren garapenerako ere.

- **Munduan egoteko-ekiteko nortasun-ekintza.** Jakin badakigu, praxi iraultzailera hurbiltzeko edo bertan lanean jarduteko garaian identitateak edo nortasunak berebiziko garrantzia duela, besteak beste, proiektu zabalago baten parte izateak sentiarazten duen ongizateak konpromisoa eta lanerako grina areagotzen dituelako. Zentzu horretan, arreta berezia eskainiko diogu kolektibitateari eta berau gorpuzteko nortasun-ekintzei.

2.2. IKASKUNTZA EREMUAK

Ikastea ez da irakaslearengandik ikaslearengana doan norabide bakarreko bidea. Proiektu honetan adituak ez ezik, arituak ere badu zer esana. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesu bat da, elkarlanean eta elkartasunez burutu beharrekoa. Honenbestez, denon jakintzak dira baliagarriak zein beharrezkoak, agerikoak zein ezkutukoak. Horregatik, horiek denak azaleratu, indartu eta gauzatzeko ikaskuntza-prozesua eremu pedagogiko anitzetan garatuko da.

Ikaskuntza-eremuak eremu pedagogikoak dira, helburu orokorrak eta ikaskuntzarako helburuak lortu ahal izateko ikasi beharreko edukiak zerrendatzen dituztenak. Hau da; formazio politikorako ezinbestekoak diren edukiak multzokatzeko eta gaitasunak garatzeko proposamen metodologikoa dira.

- **Komunitate-lana:** Elkarbizitza sostengatzeko lanak ez dira nolanhikoak eta horiek partekatuak izan behar dira. Lanaren bidez, gure existentziarako nahiz bizitzarako baldintzak sortzen ditugu, edo sortu beharko genituzke. Lanari esker, gainera, bizi baldintzak bermatzeaz gain, gure klase-nortasuna garatzen dugu. Hortaz, berebiziko garrantzia du lanak, dimentsio pedagogikoa zein askatzailea barne hartzen dituelako.

- **Teoria eta praktika politikoa:** Borroka politikoan bezala, teoria iraultzailea ez da bat-batean sortzen. Zapalduen interesak eta erronka historikoa ulertzeko ezinbestekoa da borroka espezifikoak errealitatearen (politiko, historiko, ekonomiko eta sozialaren) azterketa sakonarekin uztartzea.

- **Kultura:** Kultura ikaskuntza-eremu gisa proposatzeak baditu helburu jakinak. Izan ere, nortasun-ekintzen bitartez, klase ikuspegitik kontra-hegemonia edo hegemonia kultural berriak ezar daitezke. Jakina denez, kultur sorkuntzaren edota gorputz hezkuntzaren bitartez, jendartearen "sen ona" edo logika nagusia eralda daitezke, bere baitan mundu ikuskera hegemoniko askatzaileagoak errotuz. Pertsonak eta kolektiboek dugun sorkuntza gaitasunaz, eta sorkuntzak duen komunikatzeko eta eraldatzeko gaitasunaz jabetu nahi dugu. Finean, gaitasun hori kontziente egiten eta garatzen lagundu nahi dugu.

- **Antolakuntza-lana:** Proiektu honetan antolakuntzaz ari garenean, ikaskuntza-eremu bati buruz ari gara. Gure helburua ez da inolako antolakunderik sortzea, bultzatzea, goraiatzea edota lehenestea. Baina, noski, edozein prozesu eraldatzailek antolakuntzaren beharra du, izan ere, antolakuntzaren bitartez gauzatzen baititugu berehalako helburuak nola helburu estrategikoak. Soilik antolakuntzaren bidez irits gaitzke eraiki nahi dugun hori planifikatzera eta gauzatzera. Beraz, antolakuntza, ezinbesteko lan tresna izango da guretzat, eremu pedagogiko eta praktiko gisa; bizitza erdigunean jartzea, barne hausnarketa sustatzea, barne komunikazioa erraztea, kideon arteko harremanak zaintzea, elkar-eragitea, elkar-zaintzea eta bizikidetzeta, antolakuntza ona garatzeko ezinbesteko elementuak dira. Formazio-prozesua oinharri-taldeetan garatzen da: kide guztiek beren oinharri-talde zehatza daukate, eta funtzionamendua talde horien bidez gauzatzen da.

2.3. OINHARRITXIKI ESKOLA

Eskolara etorriko diren pertsonen ardurapeko haurren egonaldia esanguratsua eta aberatsa izan dadin, zein haurren arduradunek formazio-prozesuan parte hartzeko aukera berdinak izan ditzaten, Oinharri Txiki proiektua jarri dugu abian. Haurren zaintzaren kontzeptua gainditu eta bestelako proposamen hezitzaile bat eraiki nahi dugu, herri-eskola integral gisa aritu ahal izateko.

Tokian tokiko curriculumen eta proiektuen bidezko ikaskuntzan oinarritutako egitasmoa da: bertan bizi eta esperimentatzeko aukera eskaintzeko.

Barnetegia burutuko den herria eta bere inguruak ezagutzea, Oinharri formazio politikorako eskolaren ikaskuntza eremuen oinarritzko ezagutzak barneratzea, eta adin desberdinetako hurrek talde moduan aritzea izango dira Oinharri Txiki eskolaren helburuak.

Ikas daitezkeen eduki motak (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) antolatu ahal izateko ikaskuntza-eremu orokorrak (Oinharri formazio politikorako eskolaren berberak) eta ikaskuntza-eremu zehatzak (herriaren natur ingurunea, historia, etxeak eta auzoak, pertsonak, lan motak, kulturaren sorkuntza eta transmisioa, erakundeak...) proposatzen dira. Ikaskuntza-eremu orokorrek zeharkako izaera izango dute, alegia, ikaskuntza-eremu zehatzak jorratu ahala txertatuko ditu dinamizatzailerak.

Edukiak praktikatu ahal izateko, sei saiotan garatuko den proiektua diseinatu da, bertaratuko diren haurren interesen arabera moldatuko dena. Pedagogia Lantaldeko kide batek izango du saioak gidatzeko ardura eta, berarekin batera, ikastaroan parte-hartzen duten pertsonak ere dinamizazio lan horietan aritzeko beta izango dute. Horretarako, goizeko eta arratsaldeko txandak antolatuko dira, eta txanda bakoitzean ikastaroko parte-hartzaile bat arituko da Pedagogia Lantaldeko arduradunarekin elkarlanean haurren ikaskuntza prozesua errazten.

Ebaluazio kualitatibo, hezigarri eta etengabekoaren proposamenak kontuan hartuz, proiektua ebaluatzeko aukera izango dute hurrek.

ezagutzuz aldatzea

[3]

NOLA ERAIKIKO DUGU OINHARRI? Euskal Herrirako formakuntza eskola sortzen

Oinharri Eskolaren eraikuntza prozesua herri mugimenduentzako formakuntza politikorako eskola sortzeko eta eraikitzeko prozesua dugu, 2019an martxan jarri eta gero, behar bezainbeste urtez luzatuko dena.

Arestian aipatu bezala, Eskola honek bizipenetan oinarritutako prestakuntza integrala bultzatzea du xede, besteak beste, kultura, komunitate-lanak, teoria eta praktika politikoa edota antolakuntza-lana dira bere lan-ildo nagusiak. Prozesuan zehar, Oinharriren oinarriak jartzea da asmoa, hau da, eskolaren espazio fisikoa, proiektu pedagogikoa zein proiektuaren antolakuntza harriz harri eraikitzea.

Honakoak dira datozen 5-10 urteetarako eraikuntza-prozesuaren ardatzak:

- Proiektua osatuko duten pertsonekin eta gainerako eragileekin behar diren harremanak, loturak eta saretze prozesuak egitea.
- Proiektu politiko-pedagogikoa esperimentatzen joatea urteroko Barnetegien bidez.
- Eskolarako egoitza fisikoa eraikitzea.
- Komunitatea antolatu, oinharrikideak proiektura batu.

3.1. PROZESUA HELBURU: PROZESUA ERAIKIZ, ESKOLA SORTUZ

Eskola bera eraikuntza prozesuaren ondorio zuzena izango da, horregatik, sortze prozesua bultzatzea eta garatzea oso garrantzitsua izango da. Nolako prozesua, halako emaitza. Zentzu horretan, Eskolak eduki beharko lituzkeen ezaugarriak bere sortze prozesuan garatzen hasita, sortze prozesuak zehaztuko du jaioko denaren nolakotasuna.

Eskola jaiotze fase honetan, gure helburua ez da “eskola bera eraikitzea” izango, baizik eta Eskola sortzeko prozesua eraikitzea; arreta egindako ibilbidean, prozesuan kokatuz. Azken batean, prozesu honen bidez eta prozesu honetan zehar joango baita Eskolaren izaera eta nolakotasuna marrazten.

Prozesu dinamikoa, irekia, parte-hartzailea, zabala, anitza, eta eraikitzailea sortu nahi dugu. Zorrotza bere printzipio eta balore iraultzaileetan, eta malgua, besteak beste, parte-hartzeko moldeetan, funtzionamenduan zein jardueretan.


3.2. PARTE HARTZEKO MODU ANITZAK

Parte hartzeko espazio anitzak zabalduko dira, bai norbanakoen parte-hartzea errazteko, bai eta eragile, kolektibo edo mugimendu herritarren parte hartzea ahalbidetzeko ere. Arian-arian, eraikitze prozesuan zehar sortzen diren harreman, ideia eta sinergien arabera, parte hartzeko bide edo modu berriak zabalduko dira. Besteak beste, asanbladak, jardunaldi irekiak, mintegiak, auzolanak... izango dira parte-hartzean sakontzeko tresnetako batzuk.

Horretarako guztirako, hainbat bide eskainiko ditu Oinharrik: eskolaren dinamikan parte hartzea, lantaldeetan lan egitea, ekarpen ekonomikoa bideratzea edota informazioa jasoz eta hedatuz laguntzea.

Honenbestez, eskolan parte hartzeko moduaren arabera, oinharrikideak eta oinharri lagunak izango dira proiektuaren funtsezko figurak: oinharrikideak lantaldeetan aritzen diren bitartean, oinharri lagunak proiektuaren komunitate zabaleko kideak dira, hau hurbiletik jarraitzeko interesa erakutsi dutelako edota bazkide bilakatu direlako.

Egun, asanbladaz gain, hainbat lantalde daude martxan (pedagogia lantaldea, komunikazioa, etxea eta ekonomia), eta lau hilean behin egiten den asanblada dugu proiektuaren inguruko erabakiak hartzeko markoa. Dena den, arian-arian, eraikuntza prozesuan zehar azaleratzen diren beharren arabera egituratuko da proiektua.



[4]
NON KOKATUKO DA OINHARRI ESKOLA?
Egoitza fisikoa eraikitzen

Oinharri Eskolak Euskal Herri luze zabalera begira lan egingo duen arren, gure proiektu politiko pedagogikoa aurrera eramateko leku fisiko baten beharra ikusi dugu hasiera-hasieratik. Formakuntza teoriko-praktikoa garatzeko elkarbizitza ezinbesteko zutabea dela ulerturik, hau posible egingo duen espazio edo egoitza fisikoaren proposamena osatzeko lanetan aritzeko lantalde bat eratu da hastapenetik.

Erratzun (Baztan) izango du egoitza Oinharri Eskolak, Erratzuko herriaren elkargune eta batzartoki historikoa izan den Ostatuan. 800 m² dituen etxe honetan mendeen zama agerikoa da; hain zuzen, biziberritze proiektu baten esperoan egon da azken hamarkadetan eraikina. Bizilagunek (herriko etxe gehienena zen ostatuaren jabetza) Erratzuko Ostatua Fundazioari eskaini zioten haien parte, eta herriaren diruarekin eta herritarren auzolanari esker hainbat konponketa egin dira azken urteotan, nahiz eta, oraindik ere lan handia dagoen egiteko.

Oinharri proiektuaren eta Erratzuko herriaren arteko elkarlanari esker baina, badirudi eraikinak etorkizun oparagoa izango duela epe ertainean. Zeregin horretan ari gara buru-belarri lanean Euskal Herriko herri mugimenduko hainbat kide, Erratzuko eta Baztango bizilagunekin batera. Gure xedea argia da: Erratzuko nahiz bailarako beharrak asetuko dituen espazio fisiko bat sortzearekin batera, formakuntza politikoaren ikuspegitik Euskal Herriko herri mugimenduentzat erreferente izango den gune berri bat piztea.

Bide horretan hain justu, garrantzi berezia hartzen du eraikuntza prozesuak; izan ere, Eskolaren oinarri ideologikoak eta Baztango bailararen izaera bat datoz espazio amankomun hau ulertzeko garaian: jabetza komunala, batzarra eta parte-hartze zuzena, naturari eta bertako bizitzari atxikimendua, bioeraikuntza, inguruko baliabideen aprobetxamendua, auzolana, kultura, euskara...

Erratzuko Ostatua, beraz, harriz harri eta eskuz-esku eraikiko da, eta eraiki ahala sortuko da elkarbizitza berria bailarako nahiz Euskal Herriko herritarren eta herri eragileen ekimenari esker.



Harremanetarako:

oinharri@protonmail.com